



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2017ko otsailaren 23a

36. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Lege proposamena, lanbide karreraren sistemaren aplikazio esparrua Osasun Departamentuari eta haren erakunde autonomoi atxiki gabeko beste osasun langileei zabaltzen diena. Osoko Bilkurak aintzat hartua (3. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da departamentuen arteko koordinazio-talde bat sor dezan kultur aniztasuneko politikak bultzatzeko, eta kultur aniztasunerako eta bizikidetasunerako plan bat egin dezan. Osoko Bilkurak onetsia (4. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Gorte Nagusiak premiatzen dira Zigor Kodeko 573. artikulua alda dezaten. Osoko Bilkurak onetsia (4. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak familiak animatzen ditu beren seme-alabak Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publikoetan eskolatu ditzaten. Osoko Bilkurak onetsia (5. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 201/2002 Foru Dekretuko 2. artikulua eta 202/2002 Foru Dekretuko 8. artikulua alda ditzan. Garapen Ekonomikorako Batzordeak onetsia (5. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Espainiako Futbol Federazioa, Indarkeriaren aurkako Batzordea eta Kiroleko Bortizkeriaren, Arrazakeriaren, Xenofobiaren eta Intolerantziaren aurkako Estatuko Batzordea premiatzen dira beren diziplina kodean atal bat jaso dezaten, indarkeria matxisten eta emakumeenganako indarkerien aurkako aipamen espresa eginen duena. Kultura, Kirol eta Gazteria Batzordeak onetsia (6. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da arautu dezan Foru Komunitateko transplante-
etarako organo-emate, -erauzte eta -garraioaren antolaketa. Osoko Bilkurak bazter utzia (6. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak arbuiatu egiten ditu Hezkuntza eta Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako departamentuek egindako kanpainak, eskola-aurreinskripzioa egiteko epe-
aren berri ematekoak. Osoko Bilkurak bazter utzia (7. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da alargun-pentsioaren kenkaria, aurrerakina eta osagarria 2017rako ezarritako LGSaren arabera gaurkotu ditzan. Mozioa erretiratzea (7. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da alargun-pentsioak 2017rako ezarritako lanbide arteko gutxieneko soldataren zenbatekoraino osa ditzan. Mozioa erretiratzea (7. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, lanbide karreraren sistemaren aplikazio esparrua Osasun Departamentuari eta haren erakunde autonomoei atxiki gabeko beste osasun langileei zabaltzen diena.

OSOKO BILKURAK AINTZAT HARTUA

Legebiltzarrak, 2017ko otsailaren 16an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen foru lege proposamen bat aintzat hartzea, lanbide karreraren sistemaren aplikazio esparrua Osasun Departamentuari eta haren erakunde autonomoei atxiki gabeko beste osasun langileei zabaltzen diena. Proposamen hori Unión del Pueblo Navarro

parlamentu-taldeak aurkeztu zuen, eta 2017ko urtarrilaren 12ko 8. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2016ko otsailaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da departamentuen arteko koordinazio-talde bat sor dezan kultur aniztasuneko politikak bultzatzeko, eta kultur aniztasunerako eta bizikidetasunerako plan bat egin dezan.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2017ko otsailaren 16an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: "Nafarroako Gobernua premiatzen da departamentuen arteko koordinazio-talde bat sor dezan, kultur aniztasuneko politikak bultzatzeko, eta kultur aniztasunerako eta bizikidetasunerako plan bat egin dezan".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

"Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Erakundeekiko Harremanetarako Departamentutik departamentuen arteko koordinazio-talde

bat sor dezan kultur aniztasuneko politikak bultzatzeko, eta ikuspegi hori kontuan har dezan, zeharkakotasunez, departamentu guztietan.

2. Kultur aniztasunerako eta bizikidetasunerako plan bat egin dezan, Nafarroan jatorriaren eta kulturaren aniztasunarekin loturik dauden errealitate guztiei erantzuteko. Gizarteratzeko politikak kontuan hartuko dituen plan integral bat izanen da, herritar guztiei eskubide- eta aukera-berdintasuna bermatzeko, bai eta bizikidetzarekin eta gure aniztasun osoa egokitzearekin lotutako politikak ere".

Iruñean, 2017ko otsailaren 17an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Erabakia. Horren bidez, Gorte Nagusiak premiatzen dira Zigor Kodeko 573. artikulua alda dezaten.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2017ko otsailaren 16an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: "Gorte Nagusiak premiatzen dira Zigor Kodeko 573. artikulua alda dezaten".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

"1. Nafarroako Parlamentuak Gorte Nagusiak premiatzen ditu presako izaerarekin ekin diezaioten

ten Zigor Kodeko 573. artikulua eta martxoaren 30eko 2/2015 Lege Organikoak ezarritako terrorismo-kalifikazioa aldatzeari.

2. Erabaki hau Diputatuen Kongresuko eta Senatuko mahaiei helaraztea, bi legebiltzarretako parlamentu-taldeei igor diezaieteren".

Iruñean, 2017ko otsailaren 17an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak familiak animatzen ditu beren seme-alabak Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publikoetan eskolatu ditzaten.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2017ko otsailaren 16an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Nafarroako Parlamentuak familiak animatzen ditu beren seme-alabak Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publikoetan eskolatu ditzaten.”

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak familiak animatzen ditu beren seme-alabak Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publikoetan eskolatu ditzaten, bermatzen dituelako kalitatezko hezkuntza, denak bizikidetasunean eta bizikidetasunerako sozializazioa, zein ere diren ikaslearen edo haren familiaren jatorria, erlijioa, sexua, ahalmena nahiz beste edozein inguruabar indibidual!”

Iruñean, 2017ko otsailaren 17an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da 201/2002 Foru Dekretuko 2. artikulua eta 202/2002 Foru Dekretuko 8. artikulua alda ditzan.

GARAPEN EKONOMIKORAKO BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Garapen Ekonomikorako Batzordeak, 2017ko otsailaren 21ean egindako bileran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Nafarroako Gobernuak premiatzen da 201/2002 Foru Dekretuko 2. artikulua eta 202/2002 Foru Dekretuko 8. artikulua alda ditzan.”

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du alda dezan 201/2002 Foru Dekretuaren 2. artikulua, ikuskizunetarako kafetegiararen lizentzia duten lokalak ixteko ordutegiari dagokien arloan, haiek taberna berezien ordutegietatik askatuz eta aipatu araudiaren F) motako lokalen (diskotekak eta dantzatokiak) ordutegiekin berdinduta.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du alda dezan 202/2002 Foru Dekretuaren 8. artikulua, zeinak onesten baitu establezimenduen, ikuskizun publikoen eta josteta jardueren katalogoa, eta arautzen baititu lokalen eta enpresen erregistroak, honela:

– Aipatu artikuluen 4. eta 5. idatz-zatietan ezartzen den soinu-muga kentzea.

– Kultur programaziorako gutxieneko eskakizun batzuk ezartzea, halako moduan non lizentzia mota hori eduki nahi duten lokalek urtero kultur arloko 15 ekitaldi, gutxienez ere, justifikatu behar dituzten.”

Iruñean, 2017ko otsailaren 22an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Erabakia. Horren bidez, Espainiako Futbol Federazioa, Indarkeriaren aurkako Batzordea eta Kiroleko Bortizkeriaren, Arrazakeriaren, Xenofobiaren eta Intolerantziaren aurkako Estatuko Batzordea premiatzen dira beren diziplina kodean atal bat jaso dezaten, indarkeria matxisten eta emakumeenganako indarkerien aurkako aipamen espresa eginen duena.

KULTURA, KIROL ETA GAZTERIA BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Kultura, Kirol eta Gazteria Batzordeak, 2017ko otsailaren 21ean egindako bileran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Espainiako Futbol Federazioa, Indarkeriaren aurkako Batzordea eta Kiroleko Bortizkeriaren, Arrazakeriaren, Xenofobiaren eta Intolerantziaren aurkako Estatuko Batzordea premiatzen dira beren diziplina kodean atal bat jaso dezaten, indarkeria matxisten eta emakumeenganako indarkerien aurkako aipamen espresa eginen duena.”

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Espainiako Futbol Federazioa, Indarkeriaren aurkako Batzordea eta

Kiroleko Bortizkeriaren, Arrazakeriaren, Xenofobiaren eta Intolerantziaren aurkako Estatuko Batzordea premiatzen ditu beren diziplina kodearen 69. artikuluan atal bat jaso dezaten, Estatuko futbol-zelaietako indarkeria matxisten eta emakumeenganako indarkerien aurkako aipamen espresa eginen duena.

Nafarroako Parlamentuak Kirolaren Kontseilu Nagusia –Estatuko Administrazioan kirol arloko jardueraz arduratzen den erakundea– premiatzen du susta dezan indarkeria matxisten eta emakumeenganako indarkerien aurkako aipamen espresa egin dezan federazioen erregelamenduetan, beren kirol-jarduera gauzatzen den agertokietan”

Iruñean, 2017ko otsailaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da arautu dezan Foru Komunitateko transplanteetarako organo-emate, -erauzte eta -garraioaren antolaketa.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

María Teresa Sáez Barrao andreak honako mozio hau aurkeztu zuen: “Nafarroako Gobernua premiatzen da arautu dezan Foru Komunitateko transplanteetarako organo-emate, -erauzte eta -garraioaren antolaketa.

Legebiltzarreko Osoko Bilkurak, 2017ko otsailaren 16an egindako bilkuran, erabaki zuen aur-

keztutako mozioa baztertzea. Mozio hori 2017ko urtarrilaren 27ko 19. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2017ko otsailaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak arbuiaitu egiten ditu Hezkuntza eta Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako departamentuek egindako kanpainak, eskola-aurreinskripzioa egiteko epearen berri ematekoak.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Alberto Catalán Higuera jaunak honako mozio hau aurkeztu zuen: “Nafarroako Parlamentuak arbuiaitu egiten ditu Hezkuntza eta Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako departamentuek egindako kanpainak, eskola-aurreinskripzioa egiteko epearen berri ematekoak.

Legebiltzarreko Osoko Bilkurak, 2017ko otsailaren 16an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa baztertea. Mozio hori 2017ko otsailaren 10eko 29. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2017ko otsailaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da alargun-pentsioaren kenkaria, aurrerakina eta osagarria 2017rako ezarritako LGSaren arabera gaurkotu ditzan.

MOZIOA ERRETIRATZEA

Legebiltzarreko Osoko Bilkurak, 2017ko otsailaren 16an egindako bileran, adierazi zuen jakinaren gainean dagoela Nuria Medina Santos andreak aurkezturiko honako mozio hau erretiratu duela: “Nafarroako Gobernuak premiatzen da alargun-pentsioaren kenkaria, aurrerakina eta osagarria 2017rako ezarritako LGSaren arabera gaurko-

tu ditzan”. Mozioa 2017ko otsailaren 10eko 29. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2017ko otsailaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da alargun-pentsioak 2017rako ezarritako lanbide arteko gutxieneko soldataren zenbatekoraino osa ditzan.

MOZIOA ERRETIRATZEA

Legebiltzarreko Osoko Bilkurak, 2017ko otsailaren 16an egindako bileran, adierazi zuen jakinaren gainean dagoela Maribel García Malo andreak aurkezturiko honako mozio hau erretiratu duela: “Nafarroako Gobernuak premiatzen da alargun-pentsioak 2017rako ezarritako lanbide arteko gu-

txienerko soldataren zenbatekoraino osa ditzan”. Mozioa 2017ko otsailaren 10eko 29. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2017ko otsailaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

